

Postala

Goizeroko ohitura. Bezperan sobratu zen ogia zatitan moztu, txigorgailuan berotu, eta mantekilaz igurtzi ondoren, ederki gozitzen zuen ahoratzean. Ondoren, irabiagailuan prestaturiko ahabi zukua edaten zuen: "Hau antioxidatzaile bikaina da zahartzeari aurre egiteko!". Aitonak, maiz esaten zigun hori arreba eta bioi, sukaldeko mahaian, guk, kafesnea eta madalenak jaten genituen bitartean. Irratiko albisteak entzunez gosaltzen genuen hirurok.

Amaitu orduko, aurreko egunetako egunkari sorta besapean hartzen zuen, eta etxetik atera aurretik musu ematen genion. Bera, bere gelara, eta gu, gurasoekin, eskolara. Beti etxean geratzen zen; ez zen askorik irtetzen. Baziren urteak gurekin bizi zela. Alargundu zenetik...

Aitona Inaziok 'etxekolanak' egiten zituen bere gelako mahaitxoaren aurrean. "Zertan aritzen da?", galdetzen genion amari. "Bere gauzetan...", erantzuten zigun. Egunkari eta aldizkariz josia zeukan gela, eta bere urtebetetzean oparitu genion luma estilografikoa beti eskura izaten zuen. Baita uztai-koaderno bat ere. A, eta irratia une oro martxan.

Orduak ematen zituen bere gelan sartuta. Pilo bat. Ikastetxetik etxera bueltatzen ginenean, maiz, egoten zen han bakar-bakarrik. Oheratzean, bere gela ondotik pasatzean beti izaten zuen irratia piztuta; goizeko ordu txikiak arte egoten zen entzuten.

Afalorduan, aita eta aitona, arreba eta biontzat pertsona erabat ezezagun askoren inguruan hitz egiten aritzen ziren. Batzuetan oso sutsu. Gu isilik egoten ginen. Aipatzen zituzten izen haiek ez ziren batere ezagunak guretzat. Ez ziren ez familiakoak, ez bizilagunak, ezta auzokideak ere.

Hura jakinmina! Nor ote dira Eusebio, Socrates, Mourinho, Oyarzabal, Guardiola... delako horiek? Aitonaren soldaduskako lagunak? Herriko musika bandako partaideak? Mendi elkarteko bazkideak? Datorren urteko gure irakasleak? Amak, errieta egiten zien, beti gai berberaz hitz egiten aritzen zirela leporatuz.

Afaloste batean, “aste honetatik ez da pasako; ziur nago! Estankokoari ere gauza bera esan diot”, zuzendu zitzaion aitona pozarren amari. “Azkeneko hiru urte hauetan gauza berbera esaten ari zara astero!”, bota zion bueltan aitak irribarrez. Hitz haiek entzun orduko, kopetilun joan zen aitona bere gelara eskaileretan gora. Amak, begirada zorrotza bota zion aitari...

Orain, etxera itzultzen naizenean, sukaldean gosaltzen dudan aldiro, aitona akordatzeko naiz. Batik bat, Maldivetako palmondo eta hondartza bat ageri den postala, hozkailuko atean iman baten preso dagoena, ikusten dudanean. Hurbildu eta eskuetan hartu dut.

“Kaixo! Zer moduz zaudete? Ni, ondo. Primeran! Ia hilabete daramat hemen; bai leku ederra. Paradisua! Zeelanda Berriko lagun batzuk egin ditut. Oso atseginak dira. Beraien etxera gonbidatu naute. Akaso joango naiz... Koraletan barrena urpekaritza egitera noa. Musuak etxeko txikiei”.

Hainbat ahaleginen ondoren, aitona, hamabosteko kiniela asmatu zuela esan zigunean, denok, aho zabalik geratu ginen. Batik bat, aita! Egun hartan gaseosaren antzeko edari mikatz hura edan nuen estreinakoz; cava.

Orain, aitona, ez dugu etxean inoiz ikusten, gela utzi zuen bezala dago, eta bere irratiak aspaldian ez du txintik esaten. Ez da ia etxetik azaltzen. “Hortik barrena dabil”, erantzuten du amak galdetzen dioten bakoitzean.

Badira lau urte, tarteka-marteka etxean postal bat jasotzen dugula. Ziur bere ohiko lumarekin idazten duela. Batzuetan aurki itzuliko dela esaten du. Egia esan, ez dakit... Izan ere, beti berdin amaitzen ditu idatzi guztiak, “Oharra: ez nazazue itxaron, kanpoan afalduko dut”.

Pinpilinpauza